

Reala ♦ Idiakezek ez du ulertzen zer ari zaion pasatzen azkenaldian Realean

Zer gertatzen da?

Jokalaria entrenamenduez, kontratuaz, harrobiaz eta bere bizitza pribatuaz mintzatu zen atzo



EDURNE KOCH

Iñigo Idiakez, joan den abenduan Zubietan, bidaia bati ekin aurretik.Enekoitz Esnaola / **Donostia**

ZER GERTATZEN da Iñigo Idiakezeekin? Bernd Kraussek esaten duen bezala, gaizki entrenatzen ari al da?... Antzeko galderak egiten dituzte jarraitzaileek. Jokalaria gai horietaz mintzatu zen atzo, Donostiako Herri Irratian.

Gaizki entrenatzen? • Idiakez, itxura batera, ez da ari gaizki entrenatzen. Beti gogotsu aritzen diren horietakoa da. Baina aspaldian, aurretik partidu batzuetan titular jokatu ondotik, oso gutxitan jokatu du. Idiakezek eta Kraussek hilaren 4an

eduki zuten solasalditxo horretaz. «Hilaren 2an taldeak Valentzian jokatu zuen, eta Kraussek esan zidan nik ez jokatzeko arrazoia ez dela kontratua, bera ez delako horretan sartzen, eta ez zela sukarra —ez bainuen izan, baten batek kontrakoa esan arren—. Aurreko astean ez omen nintzen ondo entrenatu, eta horregatik geratu omen nintzen deialditik kanpo». Lehengo igandean itzuli zen deialdietara. «Futbolari batek burua ondo eduki behar du, eta garbi dago nik ez dudala ondo eduki azken hiru asteetan. Lehengoan zelaira atera nin-

tzen, eta onartzen dut ez zela hura espero nuen Idiakez, eta ez dakit zergatik».

Kontratua • 2000 urtea arteko kontratua dauka Idiakezek Realarekin, eta 950 milioi pezetako klausula, baina esan izan da hitza emanda diola beste klub bati —Athletici—. Idiakezek dio ez dela egia. «Gezurra da hori. Nik ez dut kontratu aurrerik sinatu inorekin. Niri beti esan izan didate Athleti-cera joango naizela, baina Realeko lehen taldean bost denboraldi daramatzat. Ni lasai nago, baina horrek, nahitaez, eragina du nigan». Jokalariak klubarekin 1997ko apirilean hitz egin zuen azkeneko aldiz kontratuaz. «Gaur egun ez dut Realaren eskaintzarik». Eta «dudak» ditu Realak «maite» ote duen.

Harrobia • Jokalariak elkarriketa eskatu dio klubari, eta ez omen dio soilik diruari begiratu. «Beti esan izan da Realean etxeko jokalaria asko zaintzen direla, eta nik nahiko nuke orain baino batasun handiagoa izatea». Futbola asko aldatu dela onartu du Idiakezek, baina aldaketa, nonbait, ez zaio

askorik gustatzen. «Lehen Atotxan oilo-ipurdia jartzen zitzaidan Realak ikustean, baina orain, Realeko jokalaria izanda ere, gertatu izan zait ez sentitzea lehen sentitzen nuena. Eta nik ez dut uste hori jokalariaren errua denik; kontuan hartu behar da [Realean] gauzak nola egiten diren».

Idiakezen bizitza • Idiakezen bizitza pribatuari buruzko komentario batzuk ere atera dira azken aldian, eta jokalaria berak ez daki zergatik den hori. «Agian baten batek gorrotoa dit, edo inbidia. Adibidez, Urtezaharreko kontuak atera dira, eta begira zer egin nuen nik egun hartan, jendeak esan duenez: udaltzain batekin liskarra izan nuen, Huescara joan nintzen eskiatzera, eta goizeko seietan Bataplanen nengoen. Hiru gauza egin nituen, nonbait, egun hartan. Eta haxe da nik Urtezaharrean benetan egin nuena: gurasoekin afaldu nuen haien etxean, goizeko ordu biak arte amarekin partxisean jokatzen aritu nintzen, eta gero neure etxera joan. Ez dakit, beraz, zergatik esaten diren horrelakoak nitaz».

Krauss ohiko bati atsedean ematea pentsatzen ari da

Kraussek atzoko prentsaurrekoan esan zuenez, «pentsatzen» ari da bihar Alavesen kontra (17:00) ohiko titular bati atsedean eman edo ez. Ez dago garbi zeini.

De Pedrok arazoak ditu, eta Kovacevic osatu da

Javier de Pedrok arazo fisiko batzuk ditu, eta atzoko entrenamenduan ez zuen baloirik ukitu. Dena den, Kraussek esan zuen jokalaria prest ego-tea espero duela. Darko Kovacevici, berriz, katarroa sendatu zaio eta atzo entrenamenduan izan zen. Oscar de Paulak min hartuta segitzen du.

Baliteke Kuhbauer deialdian izatea eta Cvitanovic titular ateratzea

Seguruenik Dietmar Kuhbauer deialdian sartuko du gaur Kraussek, azkeneko sei partiduetan, zenbait arrazoigatik, bertatik landa egon ostean. Ricardo Sa Pinto ere deialdira itzuliko da, behin zigorra beteta. Igor Cvitanovic, berriz, ondo aritu zen asteazkenean. «Gustura» dago, aukera bat eskatu du, eta ez litzateke arraroa izango bihar titular izatea.

Realak 18:00etatik aurrera entrenatuko da gaur, Zubietan

Gaur egingo du Realak derbia prestatzeko azken entrenamendua. Arratsaldeko seietatik aurrera ariko da, Zubietan. Ondoren, entrenatzaileak deialdia emango du, eta deitutakoak kontzentrazioa joango dira.

Realak bi mila sarrera jarriko ditu bihar salgai

27.000 bazkide ditu Realak, eta, beraz, ezin eman sarrera asko aurkariari eta ezin sarrera asko salgai jarri Gipuzkoako herrietan eta Anoeta estadioan bertan. Oraingoan, 800 sarrera eman dizkio Alavesi, Gipuzkoako herrietan eta Donostian bertan mila banatu ditu, eta bihar bi mila jarriko ditu salgai estadiokoan.